

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

408/2021 Foru Agindua, urriaren 27koa. Ebazpena, Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1043.001) berariazko lehiaketa bidez betetzeko deialdiarena

Ekainaren 3ko 244/2021 Foru Aginduaren bidez, Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1043.001) berariazko lehiaketa bidez betetzeko deialdia egin zen. Foru agindu hori 2021eko ekainaren 14an argitaratu zen ALHAOn (65 zk.).

Merezimendu emaitzak argitaratu dira, eta Balorazio Batzordeak proposatu du deitutako lanpostu hori Juan Carlos Marín Ruiz-i esleitzea.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri ziren. Bestalde, ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zen. Bi dekretu horietan ezarritakoarekin bat etorritz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Juan Carlos Marín Ruiz behin betiko atxikitzea Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Laneko Zerbitzuaren buru lanpostuari (kodea: 1043.001).

Bigarrena. Esleitutako destinoari ezin izango zaio uko egin, eta ezin izango da lanpostuak betetzeko hurrengo lehiaketa deialdietan parte hartu lanpostuaz jabetu eta hurrengo bi urteetan, salbu eta funtzionarioak lortutako lanposturako atxikipena galtzen badu Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 50. artikulua 3. apartatua eta 4. apartatuaren a) letran xedatutakoaren ondorioz.

Hirugarrena. Jatorrizko lanpostua 2021eko azaroaren 2an utziko du.

Laugarrena. Esleitutako lanpostuaz 2021eko azoaren 3an jabetuko da.

Bosgarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz –Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta–.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 27a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR